

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AÑANAKO UDALA

#### Garbitzaile lanposturako, praktikaldian, funtzionario izendatzea

Aipatutako oinarriak eta deialdia onesten dituen 2022ko abenduaren 15eko 110/2022 Dekretua aztertu da.

Aztertu da ALHAOn (2023ko 147 zk.) argitaratutako iragarkia, zeinaren bidez hautaketa oinarriak eta deialdia argitaratu baitziren egiturazko plaza hutsak merezimendu lehiaketaren sistemaren bidez betetzeko, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozko iraupen luzeako aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren esparruan.

Abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen kudeaketa esleipena Arabako Foru Aldundiaren esku uzten da.

Aztertu da 103. zenbakiko BOEn argitaratutako iragarkia, 2023ko maiatzaren 1ekoa.

Aztertu da 2024ko 4. dekretua, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onesten duena.

Aztertu dira epaimahaiak behin betiko puntuazioekin hartutako erabakia eta 2024ko ekainaren 27ko izendapen-proposamena.

Proposatutako pertsonak dokumentazioa bidali du, deialdiaren oinarrien 14. artikuluan jasotakoaren arabera.

#### EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.– M<sup>a</sup> Puy Perez de Nanclares Iturralde (NAN:\*\* 2784\*\*\*) praktiketako funtzionario izendatzea, hiru hilabeterako, garbitzaile lanpostua betetzeko, deialdiaren oinarrietako 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Izendapen horrek 2024ko urriaren 21eko dekretu honen dataren hurrengo egun baliodunetik aurrera izango ditu administrazio ondorioak.

BIGARRENA.– Deialdiaren oinarrien 15.3 artikulua araber:

– Funtzionario izendatutako izangaiek hilabeteko epea izango dute, izendapena Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, legez ezarritako zin egitea edo hitzmatea egiteko eta lanpostuaz jabetzeko, korporazioko idazkariaren aurrean. Zin egite edo hitzmatea egiten ez badute edo lanpostuaz jabetzen ez badira, eskubide guztiak galduko dituzte, ezinbestezko kasuetan izan ezik.

HIRUGARRENA.– Lanpostuen atxikipena behin-behinekoa izango da praktikaldia amaitu arte. Dagokion taldeari dagozkion soldataren eta aparteko pagen baliokideak diren ordainsariak jasotzea dagokio, Praktiketako Funtzionarioen Ordainsariak ezartzen dituen otsailaren 10eko 456/1986 Errege Dekretuan aurreikusitako egoeretako bat gertatzen denean izan ezik.

LAUGARRENA.– Naiara Villate Ochoa esleitu zaio tutore.

BOSGARRENA.– Interesdunari jakinaraztea.

SEIGARRENA.– Agintzea ebazpen hau ALHAOn argitara dadila, bai eta erakunde honen iragarki taulan eta web orrian ere.

ZAZPIGARRENA.– Egiten den hurrengo bilkuran dekretu honen berri ematea eta Lehendakariaren Dekretuen eta Ebazpenen Liburuan transkribatzeko agintzea.

Gesaltza Añana, 2024ko azaroaren 21a

*Alkatea*

*JUAN CARLOS MEDINA MARTINEZ*